

Jasangarritasun Plana 2016



Legezko oharra	3
Erantzukizun korporatiboari buruzko gure ikuspegia eta plan honen prestaketa	4
Alderdi interesdunen itxaropenak eta dagozkien planaren ekintzak	7
● 1. programa: Gobernamendua	7
● 2. programa: Giza eskubideak	10
● 3. programa: Lan-jardunbideak	12
● 4. programa: Segurtasuna	17
● 5. programa: Ingurumena	24
● 6. programa: Bidezko eragiketa-jardunbideak: ustelkeriaren aurkako borroka eta etika	32
● 7. programa: Bidezko eragiketa-jardunbideak: balio-katea	34
● 8. programa: Partaidetza aktiboa eta komunitatearen garapena	36
Plan honen eguneratze-prozesua	53
Ekintzen aurkibidea	54

Legezko oharra

Jasangarritasun Plan honek alderdi guztietan edo batzuetan legeak eskatzen duenaz haraindi doazen eta garapen jasagarriari laguntzea xede duten ekintza batzuk biltzen ditu. Repsol Taldeko enpresa parte-hartzaileek guztiei ekiteko eta guztiak betetzeko asmo irmoa daukate. Hala ere, betetzea aldatzeko, atzeratzeko edo ezeztatzeko ahalmena gordetzen dute, horrek lege-erantzukizunik ekarri gabe, nahiz eta gerta litezkeen kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen duten.

© PETRONOR SA. 2016: Eskubide guztiak erreserbatuta. Dokumentu hau Petronor SArena soilik da eta helburu komertzialik gabe bakarrik baimentzen da guztia edo zati bat kopiatzea.

Erantzukizun korporatiboari buruzko gure ikuspegia eta plan honen prestaketa

Garapen jasangarria, gaur egun Nazio Batuek Agenda 2030ean eta haren 17 helburu globaletan jasoa, eragile politikoek, sozialek eta ekonomikoek partekatzen duten eta ekintza irmoa eskatzen duen erantzukizuna da.

Pertsonen funtsezko eskubideak gauzatzeko ezinbestekoa den energiaren hornikuntza ziurtatzu laguntzen diogu garapenari. Horretarako, lege eta araudi guztiak ez ezik, nazioarteko estandar garrantzitsuak ere betetzen ahalegintzen gara, hala nola ELGaren enpresa multinazionalentzako jarraibideak, NBERen enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak eta ISO 26000 nazioarteko araua (gizarte-erantzukizunari buruzko gida). Horrek esan nahi du alderdi interesdunek giza eskubideei eta ingurumenari dagokienez dauzkaten kezka eta itxaropenak txertatzen ditugula erakundearen erabakiak hartzeko prozesuetan, modu proaktiboan balio-katean egon daitezkeen inpaktu negatiboak identifikatu, arindu eta, hala badagokio, konpentsatzeko asmoz.


Gure alderdi interesdunek gai hauei buruz dituzten kezka eta itxaropenak identifikatu ditugu: gobernamentua, giza eskubideen errespetua, segurtasuna eta bestelako lan-jardunbideak, ingurumena, inpaktuen kudeaketa balio-katean, ustelkeriaren aurkako jardunbideak, produktuen kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dieten gaiak eta toki-komunitateetarako konpromisoa.

Itxaropen horiek modu globalean identifikatzeko, gaur egun enpresa multinazionalen portaera onargarriari buruzko nazioarteko adostasun zabalena osatzen duten nazioarteko estandarrik analizatu ditugu. Gainera, alderdi interesdunen itxaropen eta kezka espezifikoak herrialdean edo tokian bertan identifikatzeko berariazko azterketak egiten ditugu.

Analisi- eta bateratze-prozesu baten ostean, emaitzak Munduko Jasangarritasun Batzordean berrikusi dira, han baitaude gure erakundeko negozio eta unitate korporatiboetako zuzendaritza-mailako ordezkariak.

Ariketa hori urtero errepikatzen da eta, formalki eta sistematikoki, alderdi interesdunen itxaropenak eta kezka txertatzen ditu gure erabakiak hartzeko prozesuetan. Ikasketa-prozesu baliotsua da; horri esker, arriskua arintzeko gure sistemak gero eta sofistikutuak dira. Beraz, gure erakundearen garapen jasangarriantza egiten ari den bidea ezartzen laguntzen du.

ALDERDI INTERESDUNEN KONPAINIAREN ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN DITUZTEN ITXAROPENEI BURUZKO SARRERA



Jasangarritasun Plan hau analisi horren emaitza da. Agiri publikoa da eta haren betetze-maila urtero ebaluatu eta gizaritari jakinaraziko zaio, urteko jarraipen-txosten baten bidez.

Repsolen Jasangarritasun Planak garapen jasangarriari egiten diogun ekarpena dira eta hiru mailatan egiten dira konpainiaren barruan: mundukoan, herrialdekoan eta eragiketa-zentrokoan.

Plan honek epe laburreko 38 ekintza zehatz ditu, dagozkien ezarketa-adierazleekin, aurreko taulan deskribatutako 10 programetako 8tan banatuak; programa horiek ISO 26000 nazioarteko arauak (gizarte-erantzukizunari buruzko gida) deskribatzen dituen erantzukizun korporatiboaren funtsezko gaietan oinarritzen dira eta edozein enpresak etika-, ingurumen- eta gizarte-inpaktuak sortzeko gaitasun handiena daukan arloak dira.

-JASANGARRITASUN PLANAREN EKINTZEN BANAKETA JARDUKETA-PROGRAMEN ARABERA

Programa	Ekintza kopurua
Gobernamendua	2
Giza eskubideak	1
Lan-jardunbideak	4
Segurtasuna	6
Ingurumena	7
Bidezko eragiketa-jardunbideak: ustelkeriaren aurkako borroka eta etika	1
Bidezko eragiketa-jardunbideak: balio-katea	1
Partaidetza aktiboa eta komunitatearen garapena	16

Programaka, partaidetza aktiboari eta komunitatearen garapenari buruzkoa da ekintza-kopuru handiena bildu dituen, eta ondoren, ingurumenari buruzkoa eta segurtasunari buruzkoa.

Plan honetan jasotako ekintzen % 45 Repsolen lan egiten duten pertsonen ordainsari aldakorraren sistemari lotuta daude; horrek erakusten du konpainiak konpromiso argia duela garapen jasangarriari egiten dion ekarpena modu eraginkorrean maximizatzearekin.

Alderdi interesdunen itxaropenak eta dagozkien planaren ekintzak

1. programa

Gobernamendua

Erakundearen gobernamendua horrek bere helburuak lortzeko asmoz erabakiak hartu eta ezartzeko duen sistema da. Beraz, elementu erabakigarria da erantzukizun korporatiboaren printzipioak txertatzeko eta horiek gauzatzen diren ingurunea eta kultura sortzeko.

Konpainiaren gobernu-organo gorenarekin zerikusia daukaten kontuei heltzen die: baliabide finantzarioen, naturalen eta giza baliabideen erabilera eraginkorra; gardentasuna eta kontuak ematea; legea eta konpainiaren barne-araudia betetzea. Hori guztia, erakundearen liderren inplikazio eta konpromiso gorenarekin.

Alderdi interesdunek gobernamenduaren eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoak dauzka, eta horien funtzionamendua **repsol.com** webgune korporatiboaren bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Gobernamendu Programan barne hartzen diren ekintzei buruzko informazio espezifiko eskaintzen da, hurrenkera alfabetikoan sailkatuta.

EKINTZA	Akordioak errazteko elkarrizketa-prozesuak adostea.
DESKRIBAPENA	Aholku Panel Publikoetan (APP), Petronorrek eta interes-taldeetako ordezkariak industria-konplexuaren jarduerari eragiten dioten alderdi nabarmenei buruzko iritziak eta informazioa trukatzeko dituzten elkarrizketa- eta akordio-foro iraunkorretan, akordioak adosteko metodologia bat antolatuko dugu. Eztabaidagaietan horiei eskainitako denbora adostuko da eta, akordiorik egiten ez bada, hurrengo bilkura edo bilerara arte atzeratuko da, informazio berria gehitzeko.
ADIERAZLEA	Eztabaidatutako gaien kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Informazio garrantzitsuaren komunikazio publikoa hobetzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Kanpoaldeari egiten dizkiogun komunikazioak hobetzen jarraituko dugu, gizarte-sareen, komunikatu ofizialen edo gure webgunearen bidez, informazioa ahalik eta pertsona gehienengana helarazteko helburuarekin.
ADIERAZLEA	Petronorren webgunean argitaratutako berrien kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

2. programa

Giza eskubideak

Estatuek eta enpresek egiteko desberdinak dituzte giza eskubideen aldeko lan komunean. Lehenek eskubideak urratzen dituztenen aurka babesteko betebeharra daukate; enpresek, berriz, beren jardueretan errespetatzeko erantzukizuna dute. Horrek esan nahi du beharrezko prestutasunez jardun behar dutela pertsonak eskubideez gozaten duten modua ez oztopatzeko eta litezkeen inpaktu negatiboez arduratu behar dutela horrelakorik egonez gero.

Programa honek barne-prestakuntzarekin, barne- eta kanpo-sentsibilizazioarekin eta giza eskubideen arloko arauak betetzearekin zerikusia daukaten ekintzak barne hartu eta biltzen ditu: giza eskubideetan inpaktu oro saihesteko beharrezkoa den prestutasuna agertzea eta horretarako ahaleginak egitea; populazio indigenen edo beste edozein talde zaurgarriren eskubideak errespetatzea; erreklamazioei arreta ematea eta gerta litezkeen eraginak konpontzea.

Alderdi interesdunek giza eskubideen eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoa dauzka, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearen (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Giza Eskubideen Programan barne hartzen den ekintzari buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da:

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Eskubide ekonomikoak, sozialak edo kulturalak babesten dituzten erakundeekin elkarlanean aritzea.
DESKRIBAPENA	Tokiko eta nazioarteko eremuan solidaritatearen arloan jarduten duten inguruneke erakundeekin elkarlanean arituko gara. Laguntza humanitarioaz gain gizarte- eta hezkuntza-alderdietako esku-hartzea ere bultzatzen duten jarduketei emango diegu lehentasuna.
ADIERAZLEA	Elkarrekin finantzaturako proiektuen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

3. programa

Lan-jardunbideak

Konpainiak egiten duen edo konpainiaren izenean egiten den lanarekin zerikusia daukaten politikak eta jardunbideak jotzen dira lan-jardunbidetzat, hala nola lan-baldintzak, lanaldia, ordainsaria, langileen errekrutamendua, garapena eta sustapena; enplegatuen giza eta lan-eskubideak errespetatzea, adibidez, bereizkeriarik eza, nahitaezko lana, haurren lana; langileen transferentzia eta lekualdaketa; aniztasuna sustatzea eta lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea; lan-harremanaren bukaera, prestakuntza eta gaitasunen garapena, eta enplegatuen osasuna.

Era berean, enpleguarekin zerikusia daukaten gizarte-arazoei heltzeko talde-negoziaketetako, gizarte-elkarrizketetako eta hiruko kontsultetako ordezkari eta partaidetzari buruzko kontuak hartzen dira barne.

Alderdi interesdunek lan-jardunbideen eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoak dauzka, eta horien funtzionamendua **repsol.com** webgune korporatiboaren bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Lan Jardunbideen Programan barne hartzen diren ekintzei buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da:

Lan-baldintzak

EKINTZA	Petronorreko aginte-postuetan emakumeak sartzea.
DESKRIBAPENA	Erakundearen egitura eta toki guztietan bi sexuetako pertsonen kopurua orekatzearen aldeko apustua egingo dugu. 2015ean hasitako Finketaren Kudeaketa Hobetzeko Planarekin segituz, langileen funtzioen egitura malguago eta eraginkorrago baterako bilakaeran ardatzen baita, erakundeko aginte-postuetan emakumeak sartzen jarraituko dugu.
ADIERAZLEA	Petronorren beren lanbide-jardueran sustatutako emakumeen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Enpresen eta enplegatuen arteko elkarrizketa

EKINTZA	Talde sindikalekin elkarrizketa arina izatea.
DESKRIBAPENA	Talde sindikal guztiak elkarrizketa arina izango dugu, lan-gatazka konpontzeko adostasuna ahalbidetzeko helburuarekin.
ADIERAZLEA	Lan-gatazken kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Aniztasunaren sustapena eta bateragarri egitea

EKINTZA	Aukera-berdintasuna sustatzea..
DESKRIBAPENA	Lanbide-garapena sustatuko dugu, berdintasuna eremu guztietan bermatuz, generoaren, kulturaren, erlijioaren edo bestelako desberdintzapen-alderdien ondorioz bereizi gabe. Horretarako, jardunbide egoki gisa eremu publikoan zein pribatuan identifikatu diren diskriminazio positiboko ekintzak aplikatuko dira.
ADIERAZLEA	Diskriminazio positiboaren ikuspegitik bideratu diren ekintzen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Enplegatuen osasuna

EKINTZA	Aztura osasungarriez kontzientziazeko prebentzio-ekintza positiboak areagotzea eta tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzeko ohitura galaraztea.
DESKRIBAPENA	Lan Osasuneko Saitetik, aztura osasungarriei buruzko informazioa eskainiko dugu, prebentzio-jardunbide pertsonal gisa. Banakako edo taldeko ekintzak gauzatuko ditugu, besteak beste, kontzientziazio-hitzaldiak eta ohitura galarazteko terapiak. Gizartean onartzen diren substantzia kaltegarriak kontsumitzeko azturak utzi nahi dituztenen borondatezko partaidetza erraztuko dugu.
ADIERAZLEA	Egindako saioen kopurua. Adierazitako substantziak kontsumitzeari utzi dieten enplegatuen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

4. programa

Segurtasuna

Segurtasuna faktore erabakigarria da industria-eragiketetan; beraz, prebentzioa, kontrola eta mantentzea, kultura eta portaera espezifikoen sustapenarekin batera, funtsezko elementuak dira enpresa-jardueran.

Segurtasun-arriskuak saihestu eta arintzearekin, kontrolekin eta larrialdien kudeaketarekin zerikusia daukaten kontuak barne hartzen ditu: intzidenteak eta ikasitako irakaspenak jakinarazi eta ikertzea; arauak eta arloko kudeaketa-sistemak betetzea.

Era berean, lidergoaren, prestakuntzaren, komunikazioaren eta gai horien inguruko sentsibilizazioaren bidez sustatutako segurtasun-kultura eta -portaerei buruzko gaiak biltzen ditu; gure merkataritza-harremanen arloko segurtasunaren inguruko kontuak, hala nola beharrezko prestakuntza, kalifikazio-kontrolak, auditoretzak eta kontrolak, segurtasunari buruzko prestakuntza, gure merkataritza-harremanetako taldeentzako segurtasunari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak.

Alderdi interesdunek segurtasunaren eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoak dauzka, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearen (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Segurtasun Programan barne hartzen diren ekintzei buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da, hurrenkera alfabetikoan sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Jokabide-segurtasunari buruzko gure ikerketaren emaitzak aplikatzea.
DESKRIBAPENA	Giza eta antolaketa-faktorea hobetuko dugu, segurtasun-kulturaren aurrera egiteko, segurtasunaz hausnartzeko eta hori hobetzeko azterketa bat egin ostean. Jokabide-segurtasunaren eredu berriaren ezarketa errazten duten ekintza-planak eta hobekuntza-politikak garatuko ditugu.
ADIERAZLEA	Planaren aurrerapen-ehunekoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Intzidenteen kudeaketa

EKINTZA	Industria-komplexuan alarmen kudeaketaren eraginkortasuna are gehiago handitzea.
DESKRIBAPENA	Industria-intzidente baten aurrean dugun eraginkortasuna are gehiago handituko dugu, kontrol-geletako kontsoletako alarmak arrazionalizatuz.
ADIERAZLEA	Arrazionalizatutako alarmen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Arriskuaren kudeaketa

EKINTZA	Suteen eta larrialdien aurkako borrokari buruzko prestakuntza eskaintzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Langile sartu berriei suteen aurka borrokatzeko teknikei buruzko prestakuntza emango diegu, prestakuntza espezifikoko instalazioetan eta suteen aurkako praktiken esparruetan. Ispasterrekoan segurtasun-operadoreei suteen aurka borrokatzeko teknika aurreratuei buruzko prestakuntza emango diegu; Tepesakoan, txandako nagusiei eta maila altuko kideei; eta Senagosakoa petrokimikoetako larrialdiak kudeatzeari eta koordinatzeari buruzko prestakuntzarako erabiliko dugu.
ADIERAZLEA	PROAren gauzatze-ehunekoa larrialdiko ikastaroetan.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Baterako jarduerak antolatzea, esate baterako, findegiaren eta suhiltzaileen instalazioetarako bisitak edo simulakroak Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin.
DESKRIBAPENA	Baterako jarduerak egingo ditugu Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileen taldeetako arduradun eta kideekin, bai findegiaren bai suhiltzaileen instalazioetan. Jarduera horiek prestakuntza teknikoa, instalazioen bisita eta ezagutza eta baterako simulakroak barne hartuko dituzten bilerak izango dira.
ADIERAZLEA	Egindako ekintzen ehunekoa (bilerak, bisitak, simulakroak).
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Gure taldeko beste unitate batzuekin segurtasun-jardueretan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	Gure enpresa-taldeko beste negozio-unitateetako zentroekin aldizkako segurtasun-bilerak ezarriko ditugu ingurunean, adibidez, GLP Santurcerekin, ezagutzak partekatzeko eta larrialdiko egoeretan batera jarduteko.
ADIERAZLEA	Egindako bileren ehunekoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Suteen aurkako parkearen ekipamendua indartzea.
DESKRIBAPENA	Intzidenteetan esku hartzeko emari handiko monitore bat, 10.000 gpm-koa, eskuratzeko eta suteen aurkako kamioi bat berritzeko egindako inbertsio-proposamenez gain, HYTRANS sistema eskuratzeko inbertsio-proposamen bat egin dugu; emari handiko bonba horrek malgutasun handiagoa emango du ur-hornikuntzako iturri berriak (spillpond, itsas terminala) erabiltzean eta ingurunean egon daitezkeen uholdeetan modu eraginkorragoan lagunduko du.
ADIERAZLEA	Egindako inbertsioen ehunekoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

5. programa

Ingurumena

Gizarteak gaur egun ingurumen-erronka ugari aurre egiten die, alegia, munduko arazoei, hala nola klima-aldaketari edo baliabide naturalen agortzeari, baina baita tokiko arazoei ere, gertatzen diren ingurunean oso inpaktu nabaria eduki ahal baitute. Horien artean, airearen edo uren kutsadura, hondakinen sorketa edo ekosistemen eta biodibertsitatearen suntsipena aipa litezke.

Enpresa-jarduerak beti laguntzen die horrelako inpaktu batzuei. Kontu horiek garrantzi berezia daukate petrolioaren jardueran, instalazio handietan egiten diren erauzpen- edo industria-jarduerak baititu ezaugarri. Hortaz, beharrezkoa da enpresek inpaktu horiek saihestea, saihestu ezin izanez gero minimizatzea eta, azkenik, zuzentzea ahalbidetzen duten aukerak identifikatzea.

Aukera horiek arrisku eta inpaktu horiek beharrezko kontrolen bidez, larrialdien kudeaketaren bidez, eraginkortasun operatiboaren bidez eta ur-baliabideen kudeaketaren bidez saihestu eta arintzea barne hartzen dute, baita hondakinen kudeaketa, materialak erabiltzean eraginkortasuna eta arauak eta konpainiaren ingurumen-kudeaketako sistemen betetzea ere.

Era berean, klima-aldaketa arintzearekin, ingurumena eta biodibertsitatea babestearekin eta gai horiei buruzko lidergoaren, prestakuntzaren, komunikazioaren eta sentsibilizazioaren bidez kultura eta portaera jakinak sustatzearekin zerikusia daukaten kontuan barne hartzen dira, baita gure merkataritza-harremanei dagokienez beharrezko prestutasuna ere, kalifikazio-prozesuen bidez, auditoretzen eta kontrolen bidez, ingurumena babesteari buruzko prestakuntzaren bidez, ingurumenari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainen bidez, etab.

Alderdi interesdunek ingurumenaren eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoak dauzka, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearan (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Ingurumen Programan barne hartzen den ekintza bakoitzari buruzko informazio espezifikoak eskaintzen da, hurrenkera alfabetikoan sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Klima aldaketa

EKINTZA	Petronorren energia-eraginkortasuna hobetzea.
DESKRIBAPENA	Petronorren energia-eraginkortasuna inbertsioen bidez hobetuko dugu eta findegiko eragiketa-prozedurak aldatuko ditugu. Ekintza honen proiekturik esanguratsuena FCC cracking katalitikoko unitateko konpresoreen ordezkapena da.
ADIERAZLEA	Atmosferara isuritako CO ₂ tonen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Berotegi-efektuko gasen analisisen nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	Teknologikoki garatuta dagoen eta klima-aldaketaren aurkako borrokan proaktiboa den enpresa gisa, berotegi-efektu gasen analisisen nazioarteko korrelazioetan parte hartuko dugu. Korrelazio horiek gure laborategiko saiakuntzetan aplikatzen ditugun neurketa- eta analisi-metodologiaren zorrotasuna agerian uzten dute. Neurriak beste herrialde batzuetako ospe handiko laborategiekin egiaztatzen dira, eta nazioartean ezagunak diren sozietateek parte hartuko dute.
ADIERAZLEA	Partaidetza korrelazioan. DIN egiaztapen-ziurtagiria lortzea.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	CO₂ isuriak murriztea.
DESKRIBAPENA	CO ₂ isuriak murrizten jarraituko dugu inguruneko ekosistema hobetzeko asmoz.
ADIERAZLEA	Murriztutako CO ₂ tonak.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Ingurumenari emendio gehigarria egiten dieten inbertsioak identifikatzea.
DESKRIBAPENA	Bukatu ditugun proiektuak analizatuko ditugu administrazioaren arabera ingurumenari emendio gehigarria egiten dieten alderdiak identifikatzen saiatzeko [3032/2007 FORU AGINDUA, Ingurumen Foru Sailarena]. Ebaluazioa administrazioak egiteak Petronorrek egiten dituen inbertsioekin duen ingurumen-konpromisoa agerian uzten du.
ADIERAZLEA	Berrikusten diren urtero itxitako inbertsioen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Eraginkortasun operatiboa

EKINTZA	Ur-kudeaketaren mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	Finketa-jardueretarako ur-kudeaketaren mapa bat garatuko dugu, egoera diagnostikatzea eta egon daitezkeen arriskuak ebaluatzea ahalbidetzen duena. Honetara bideratuko ditugu hobetzeko ahaleginak: 1) Europar Batasuneko arau-aldaketetara egokitzea, erreferentzia onenentzat identifikatutako teknologiak, finketa BREF eta CWW, aplikatuz, zentro batzuetan muga berrietara egokitzeko hobekuntza-tresnak izan ahal baitira. 2) Uraren erabilera. Bildutako eta birzikulatutako ura
ADIERAZLEA	Ekoizpen Sailak identifikatutako erabilera-adierazle guztiak [adibidez, hartutako ura, berrerabilitakoa, erabilerak, etab.] Emisphere aplikaziora pasatzea.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Hondakin-mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	Ekoizpen-jarduerak sortutako hondakinen mapa bat egingo dugu, eta murrizteko helburuak eta proiektuak definitzeko oinarritzko ildoak definitzeko balioko du. 2013an proiektu honen lehenengo fasea egin zen, eta dagoen informazioa osatuko dugu, hondakinei, kopuruari, arriskutsutasun-ezaugarriei lotutako kostuak, horien amaierako kudeaketa eta findegiaren jarduerarako duen garrantzia bilduz.
ADIERAZLEA	Identifikatutako alderdi guztiak Segurtasun eta Ingurumen Sailari jakinaraztea, garaiz (% 100), konpainiaren hondakin-mapa finkatzeko.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Ingurumen-arriskuen eta -inpaktuen kudeaketa

EKINTZA	Isurketen kontrolean aurrerapenak sustatzea, estatuan.
DESKRIBAPENA	Urtero estatuko laborategien arteko ariketa bat, isurketen kontrolaren analisiari buruzkoa, antolatu eta babestuko dugu; maila altuko laborategiek parte hartuko dute. Ariketaren independentzia bermatzeko, kanpo-laborategi ospetsu bat kontratatuko dugu korrelazioaren datuak kudeatzeaz eta tratatzeaz arduratu dadin.
ADIERAZLEA	Laborategien arteko ariketa egitea.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

6. programa

Bidezko eragiketa-jardunbideak: ustelkeriaren aurkako borroka eta etika

Bidezko eragiketa-jardunbideak erakundeek beste batzuekin transakzioak egiten dituzten moduari dagozkio, esate baterako, kideekin, hornitzaileekin, kontratistekin, bezeroekin, lehiakideekin, dauden elkarrekin eta gobernuetako agentziekin eta sailekin.

Harreman horiek bidezko moduan garatzen saiatzerakoan, enpresek beren jardunbideak zenbait irizpidetara egokitu behar dituzte, hala nola ustelkeriaren prebentziora, horri dagokionez politikak eta jardunbideak ezarriz. Liderrek ustelkeriaren aurkako politikak ezartzean konpromisoa, motibazioa eta gainbegiraketa ematen dituztela ziurtatu behar dute, enpleguak eroskeria eta ustelkeria ezabatzeko prestatu eta arlo horietan egiten diren aurrerapenengatik pizgarriak eman; enpleguak, kideak eta hornitzaileak erakundearen politikak urratzen direnean jakinarazteko adore eman; agintariei lege penalaren urraketak jakinarazi, eta erakundearekin eragiketak egiten dituztenak antzeko jardunbideak gauzatzeko adore eman.

Konpainiako alderdi interesdunek eremu horretan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoa abian jarri ditu, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearen (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, fitxa moduan, Bidezko Eragiketa Jardunbideen Programan (Ustelkeriaren aurkako Borroka eta Etika) barne hartzen den ekintza bakoitzari buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da.

Merkataritza-harremanak

EKINTZA	Jasangarritasuneko jardueraren jarraipena egitea eta hornitzaileen eta kontratisten gizarte-erantzukizuna sustatzea.
DESKRIBAPENA	Hornitzaileen homologazio- eta jarraipen-auditoretzak egitea; horietan, gizarte-erantzukizun korporatiboaren printzipioekin konpromisoa duten alderdiak berrikusiko ditugu eta harreman-eremuaren barruko edozein gaitan Petronorren eskakizunak betetzen ez dituzten enpresak zehatuko ditugu.
ADIERAZLEA	GEKren ebaluazioarekin egindako kalifikazioen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

7. programa

Bidezko eragiketa-jardunbideak: balio-katea

Bidezko eragiketa-jardunbideak erakundeek beste batzuekin transakzioak egiten dituzten moduari dagozkio, esate baterako, kideekin, hornitzaileekin, kontratistekin, bezeroekin, lehiakideekin, dauden elkarrekin eta gobernuetako agentziekin eta sailekin. Erakunde baten jokabide etikoaren berezkoak dira beste erakunde batzuekin egiten dituzten transakzioetan.

Enpresak harreman horiek bidezko moduan garatzeko ahalegina egin beharko luke, bere erosketa-, banaketa- eta kontratazio-politiketan etika-, gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatuz; beste erakunde batzuei antzeko politikak hartzea animatuz; harremanetan dauden erakundeen jarraipen egokia eginez; enpresa txiki eta ertainei sozialki arduratsuak diren helburuak erdiesteko laguntza emateko aukera kontuan hartuz; erosketa-jokabide egokiak, bidezko prezioak, emateko epe egokiak eta kontratu egonkorak edukiz.

Konpainiako alderdi interesdunek eremu horretan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikoa abian jarri ditu, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearen (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, plan honetako Bidezko Eragiketa Jardunbideen Programan (Balio Katea) barne hartzen den ekintzari buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da:

Hornitzaileak eta esleipendunak

EKINTZA	Gure kontratistei beren onurarako informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	Enpresa kontratistei urtean zehar findegian egin beharreko lan nagusiak zuzenean jakinaraziko dizkiegu, baliabideak zenbatetsi ahal izan ditzaten, geldialdien datak eta berri beharreko kontratu garrantzitsuak barne. Geldialdiei dagokienez, lanen aurreikusitako plangintza eta ekipamenduak mantentze-arloari emateko epemugak jakinaraziko ditugu.
ADIERAZLEA	Planaren betetze-maila.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

8. programa

Partaidetza aktiboa eta komunitatearen garapena

Komunitateko partaidetza aktiboa dauden alderdi interesdunen identifikazioan eta erakundearen jarduerak sor ditzaketen inpaktuak kudeatu eta txikiagotzeari dagokienez haiekin nahastean oinarritzen da.

Era berean, partaidetza aktiboak eta komunitatearen garapenak enpresa komunitatearentzako ondasun soziala bihurtzea dute helburu, nahiz eta prozesu horretan oso erkidego desberdinak, baita kontrajarriak ere, tartean egon ohi diren eta enpresak osorik hartuta ebaluatu behar dituen. Erantzukizun partekatua behar da komunitatearen ongizatea helburu komun gisa sustatzeko. Enpresak komunitateko talde ordezkagarriak kontsultatu beharko lituzke gizarte-inbertsioaren lehentasunak zehaztean, talde zaurgarrietan arreta berezia jarritz.

Erakunde batek toki-garapenera lagundu ahal dio, enplegua sortuz, erakundeak eta tokiko hornitzaileen gaitasunak eta aukerak indartuz, baita kultura-, osasun-, gizarte- eta ingurumen-programen bidez ere.

Alderdi interesdunek partaidetza aktiboaren eta komunitatearen garapenaren eremuan dituzten itxaropenei erantzuna emateko, Repsol Taldeak kudeaketa-sistema espezifikokoak dauzka, eta horien funtzionamendua konpainiaren webgunearen (repsol.com) bidez kontsulta daiteke.

Horrez gain, Jasangarritasun Plan honetan ekintza hauek gehitu dira, itxaropen nagusietarako erantzuna indartzeko asmoz, jarraian adierazten den moduan.

Ondoren, planeko Partaidetza Aktiboko eta Komunitatearen Garapeneko Programan barne hartzen diren ekintzei buruzko informazio espezifikoa eskaintzen da, hurrenkera alfabetikoan sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Tokiko edukia

EKINTZA	Komunitatearen onurarako boluntarioria sustatu eta babestea.
DESKRIBAPENA	Boluntarioria-erakundeei lagunduko diegu, tokiko eremuan, baliakizun ekonomiko eta material gehiago emanez, inguruneke toki-komunitateetan baliabide gehiago ahalbidetzeko. Boluntarioria-talde horiek babes zibilarekin edo boluntarioria kultural eta sozialarekin lotu ahal dira, besteak beste.
ADIERAZLEA	Toki-boluntarioriarekiko lankidetzen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Beste ekoizpen-sektore batzuei, batez ere lehen sektoreari, laguntzea.
DESKRIBAPENA	Lehen sektorean autoenpleguko enpresa-ekimenak erraztuko ditugu, Petronorren berezko lursailak landa-kalifikazioan egituratuz. Jarduketa-plan bat garatuko dugu, erakunde publikoekin batera, lursail egokiaren eskuragarritasuna ahalbidetzeko. Lursail horiek, Petronorren jabetzakoak, denbora adostu eta berrikusgarri batez erabiltzeko lagako dira.
ADIERAZLEA	Izapidetzeko hirigintza-dokumentazioaren aurkezpena.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Enpleguari eusten eta toki-enplegarritasuna areagotzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	Toki-hornitzaileen trakzio-planarekiko konpromisoei eutsiko diegu inguruneke biztanleentzako zuzeneko eta zeharkako enplegu-aukerak sortzeko. Somorrostroko prestakuntza-eskolarekin elkarlanean arituko gara, praktiketarako ekipamenduak eskainiz, ikasketa-programari buruzko orientabidea emanez eta kontratisten langileen prestakuntza sustatuz. Programatutako geldialdietan, sorturiko enpleguaren zati bat hurbileko inguruneke langileek betetzearen aldeko apustua egingo dugu.
ADIERAZLEA	Muskiz, Abanto eta Zierbena herrietako enplegatuen kopurua (geldialdietan eta plantilla kontratistan).
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Petronorren hornitzaileentzako <i>Confirming</i> zerbitzua ezartzea.
DESKRIBAPENA	Petronorren hornitzaileentzako <i>Confirming</i> zerbitzua ezarriko dugu, haien fakturak aurretiaz baldintza erakargarrietan kobratzea errazteko.
ADIERAZLEA	Toki-hornitzaileen <i>Confirming</i> onarpen-maila.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Langile langabeen curriculumak toki-enplegua sustatzeko erakunde batekin (ikastetxea edo enplegu-zentro berezia) kudeatzea.
DESKRIBAPENA	Industria-zerbitzuen enpresa hornitzaileei guneko langabeen datu-base bat sortzea erraztuko diegu. Informazio hori enpresen enplegu-eskaintza eta langabeen enplegu-eskaria bateratzeko bideratuko da.
ADIERAZLEA	Kontratutako pertsonen kopurua. Kontratutako pertsoez betetako lanaldien kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Bertako herrietako ikasleentzako beka eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Inguruneke lanbide-heziketako ikastetxeetan ikasten duten bertako ikasleei eta finketa-sektoreari lotutako lanbide-familiei beka ematen jarraituko dugu.
ADIERAZLEA	Ikasle bekadunen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Inbertsio soziala

EKINTZA	Finketa-inguruneke enpresa-proiektu berriak finantzatzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	Enpresak haien kapitalean aldi baterako parte hartuz sustatzeko eta garatzeko SEED CAPITAL foru-sozietate publikoaren, aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikiaren, kapital-handitzera joko dugu.
ADIERAZLEA	Kapitala handitzea.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Langabeei enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan laguntzea.
DESKRIBAPENA	Erakunderen batekin (enplegu-zentro berezia) elkarlanean arituko gara enplegu- eta autoenplegu-ekimenak babesteko. Petronor dagoen industria-sektorerara bideratzen den zerbitzua dutenean ardaztuko gara. Urbegirekin eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin harremanetan jarri gara.
ADIERAZLEA	Petronorrek laguntzen duen ekimenen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin mantentze-lanetarako langileen prestakuntza duala koordinatzea.
DESKRIBAPENA	Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin ikasleen prestakuntza-jarduera praktikoak koordinatuko ditugu. Zehazki, Petronorren industria-sektoreak berezkoak dituen lanbide-familien prestakuntza dualaren ereduarena.
ADIERAZLEA	Petronorren prestakuntza duala egin duten ikasleen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Inguruko udalerrietan tokiko gizarte-inbertsioari buruzko programak mantentzea.
DESKRIBAPENA	Erakunde-eremuan izena duten tokiko taldeek sustatutako jarduerak finantzatu ditugu, nagusiki, kirolaren, kulturaren, gizarte nahiz hezkuntzaren, gizarte eta erkidegoaren, olgetaren, elkartasunaren, GKE-en, fundazioen eta abarren eremuetan.
ADIERAZLEA	Inguruko udalerrietan gizarte-inbertsioari dagokion programa-kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroi bisitak eta mintegiak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Unibertsitateetako eta lanbide-heziketa zentroetako lanbide-informazioaren edo prestakuntzaren eskeari erreparatuko diogu. Bi lankidetzaz jarduerak zehaztuko ditugu: - Lanbide-heziketako zentroi eta unibertsitateei Petronorren instalazioetara bisitak egiteko erraztasunak emango dizkiegu. - Erakunde horietako ikasleentzat prestakuntza-profil berdinekin prestakuntza- eta praktika-hitzarmenak egingo ditugu. Laborategia sail egokia da, besteak beste, halako jardueretan aritzeko.
ADIERAZLEA	Arreta eskaintako eskaeren ehunekoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Enpleguaren arloan talde ahulei arreta berezia eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Enplegu-zentro bereziekin, hornidurekin eta industriadako zerbitzu osagarriekin urteko kontratazio-helburuak zehaztuko ditugu. Positiboki balioztatuko ditugu modu berean jarduten duten enpresak edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonak kontratatzen dituztenak.
ADIERAZLEA	Enplegu-zentro bereziekin zerbitzuetan eta materialetan gastatutakoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Berrikuntza eta I+G

EKINTZA	Teknologia- eta unibertsitate-zentroekin lankidetzaguneak zehaztea, ezagutza zientifikoa industrian aplikatzeko.
DESKRIBAPENA	Berrikuntza Sailak teknologia-zentro publiko eta pribatuekin lankidetzaguneak zehaztuko ditu. Unibertsitateko zientzia-erkidegoak industria-erronken analisisian parte hartuko du, aurrerapen teknologikoak bere produkzio-prozesuetan aplikatzeko.
ADIERAZLEA	Aztertutako gaien kopurua. Ezarritako garapenen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Partaidetza eta elkarrizketa

EKINTZA	Ingurunetik jaso ostean, ingurumen-iradokizunak eta -kexak kontuan hartzea.
DESKRIBAPENA	Kanpoaldeko kexa eta dei guztiak erantzungo ditugu biztanleek antzematen dituzten egoerei buruz, halako ekintza-motarako konpainiak zehaztutako protokoloaren arabera informazio gehiago behar dela uste bada. Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexaren oinarria ez errepikatzeke.
ADIERAZLEA	Arreta eskainitako eskaeren ehunekoa.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Jasangarritasun Plan hau jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	Petronorren 2016ko Jasangarritasun Planean onartutako ekintzekin barneko eta kanpoko komunikazio-plana gauzatuko dugu, bi noranzkoetan, konpainiako interesdunentzat.
ADIERAZLEA	Egindako jakinarazpen-ekintzen kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

EKINTZA	Ingurunekeo biztanleen kezka ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	Eragiketen inguruan dauden biztanleen segurtasunari, gizarteari eta lanari buruzko kezka ebaluatuko ditugu. Aholku Panel Publikoek arlo honetan proposatzen dizkiguten ekintzak ezarriko ditugu. Gatazkak berriekin bideratzeko behar den informazioa emango dugu eta errazago ulertzeko teknizismoak saihesten saiatuko gara.
ADIERAZLEA	Aholku Panel Publikoen saio-kopurua.
GAUZATUKO DEN URTEA	2016
ITXIERA EKITALDIAREN AMAIERAN EGONGO DA ESKURAGARRI	

Plan honen eguneratze-prozesua

Jasangarritasun Plan hau dokumentu dinamikoa da.

Urtero planari dagozkion ekintzen lortze-maila jakinaraziko dugu eta, horretarako, itxiera-txostena argitaratuko dugu.

Bestalde, gure alderdi interesdunak kezkatzen dituzten gaiak edo itxaropenak aldakorrak direnez eta urtean zehar izandako gertaeren arabekoak direnez, plana urtero ekintza berriak gehituz edo indarrekoak berriz formulatuz eguneratuko da, egoera berrira moldatzeko.

Ondoz ondoko planaren eguneratzeek betetako ekintzen azterna utziko dute eta orotara gure konpainiak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena da.

Ekintzen aurkibidea

Legezko oharra	3
Erantzukizun korporatiboari buruzko gure ikuspegia eta plan honen prestaketa	4
Alderdi interesdunen itzaropenak eta dagozkien planaren ekintzak	7
1. programa: Gobernamentua	7
Akordioak errazteko elkarrizketa-prozesuak adostea	8
Informazio garrantzitsuen komunikazio publikoa hobetzen jarraitzea	9
2. programa: Giza eskubideak	10
Kultura eta kudeaketa	11
Eskubide ekonomikoak, sozialak edo kulturalak babesten dituzten erakundeekin elkarlanean aritzea	11
3. programa: Lan-jardunbideak	12
Lan-baldintzak	13
Petronorreko aginte-postuetan emakumeak sartzea	13
Enpresen eta enplegatuen arteko elkarrizketa	14
Talde sindikalekin elkarrizketa arina izatea	14
Aniztasunaren sustapena eta bateragarri egitea	15
Aukera-berdintasuna sustatzea	15
Enplegatuen osasuna	16
Aztura osasungarriez kontzientziazteko prebentzio-ekintza positiboak areagotzea eta tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzeko ohitura galaraztea	16

4. programa: Segurtasuna	17
Kultura eta kudeaketa	18
Jokabide-segurtasunari buruzko gure ikerketaren emaitzak aplikatzea	18
Intzidenteen kudeaketa	19
Industria-komplexuan alarmen kudeaketaren eraginkortasuna are gehiago handitzea	19
Arriskuaren kudeaketa	20
Suteen eta larrialdien aurkako borrokari buruzko prestakuntza eskaintzen jarraitzea	20
Baterako jarduerak antolatzea, esate baterako, findegia eta suhiltzaileen instalazioetarako bisitak edo simulakroak Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin	21
Gure taldeko beste unitate batzuekin segurtasun-jardueretan parte hartzea	22
Suteen aurkako parkearen ekipamendua indartzea	23
5. programa: Ingurumena	24
Klima-aldaketa	25
Petronorren energia-eraginkortasuna hobetzea	25
Berotegi-efektuko gasen analisisien nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.	26
CO ₂ isuriak murriztea	27
Kultura eta kudeaketa	28
Ingurumenari emendio gehigarria egiten dieten inbertsioak identifikatzea	28
Eraginkortasun operatiboa	29
Ur-kudeaketaren mapa bat egitea.	29

Hondakin-mapa bat egitea.	30	Gizarte-inbertsioa	43
Ingurumen-arriskuen eta -inpaktuen kudeaketa	31	Finketa-inguruneko enpresa-proiektu berriak finantzatzen laguntzea.	43
Isurketen kontrolean aurrerapenak sustatzea, estatuan.	31	Langabeei enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan laguntzea.	44
6. programa: Bidezko eragiketa-jardunbideak: ustelkeriaren aurkako borroka eta etika	32	Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin mantentze-lanetarako langileen prestakuntza duala koordinatzea.	45
Merkataritza-harremanak	33	Inguruko udalerrietan tokiko gizarte-inbertsioari buruzko programak mantentzea.	46
Jasangarritasuneko jardueraren jarraipena egitea eta hornitzaileen eta kontratisten gizarte-erantzukizuna sustatzea.	33	Unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroi bisitak eta mintegiak eskaintzea.	47
7. programa: Bidezko eragiketa-jardunbideak: balio-katea	34	Enpleguaren arloan talde ahulei arreta berezia eskaintzea.	48
Hornitzaileak eta kontratistak	35	Berrikuntza eta I+G	49
Gure kontratistei beren onurarako informazioa ematea.	35	Teknologia- eta unibertsitate-zentroekin lankidetzak guneak zehaztea, ezagutza zientifikoa industrian aplikatzeko	49
8. programa: Partaidetza aktiboa eta komunitatearen garapena	36	Partaidetza eta elkarrizketa	50
Tokiko edukia	37	Ingurunetik jaso ostean, ingurumen-iradokizunak eta -kexak kontuan hartzea.	50
Komunitatearen onurarako boluntarioritza sustatu eta babestea.	37	Jasangarritasun Plan hau jakinaraztea.	51
Beste ekoizpen-sektore batzuei, batez ere lehen sektoreari, laguntzea.	38	Inguruneko biztanleen kezkek ebaluatzea.	52
Enpleguari eusten eta toki-enplegarritasuna areagotzen laguntzea.	39	Plan honen eguneratze-prozesua	53
Petronorren hornitzaileentzako <i>Confirming</i> zerbitzua ezartzea.	40	Ekintzen aurkibidea	54
Langile langabeen curriculumak toki-enplegua sustatzeko erakunde batekin (ikastetxea edo enplegu-zentro berezia) kudeatzea.	41		
Bertako herrietako ikasleentzako bekak eskaintzea.	42		